Acompañamiento de piano (optativa): se trabajará la transposición, bajo cifrado y cifrado armónico. La duración será de una sesión semanal de 60 minutos y será grupal (hasta 4 personas alumnas).

Coro: se practica el canto a varias voces, promoviendo el conocimiento de la literatura coral de distintos pueblos. Es la continuación y el desarrollo de la coral. La duración será de una sesión semanal de 60 minutos.

## 4.3 III. MAILA

14-18 urteko gazteentzat. Maila honetan ikasgai osagarrien eskaintzarekin ikaslearen musika heziketa integrala bultzatuko da. Era berean, instrumentuaren alderdi teknikoaren garapena sustatuko da eta taldean jotzeko eskaintzan parte hartuko du ikasleak. Maila honen, probetxuzko dedikazioaren eta instrumentuaren trebetasunaren adierazle den ohorezko diploma jasotzeko aukera izango du ikasleak. Horretarako, ezinbestekoa izango da aurreko urratseko piano osagarria edo akonpainamendua ikasgaia gauzatu izana, hirugarren mailako ikasgai osagarrietan aritu eta instrumentuaren azterketa gainditzea.

Taldean jotzeko eskaintza:

- Konboak (pop/rock/erromeria…)
- Folk taldea
- Harizko orquestra
- Banda
- Txistulari banda
- Instrumentu taldeak: trikitixa/panderoa, perkusioa, gitarra, akordeoia…
- Ganbera taldeak
- Abesbatza: Narama

Taldearen helburuak: talde koordinazioa eta sinkronizazioa landuko dira, errepertorio anitzak erabiliko dira eta diziplinaren garrantzia nabarmenduko da. Entzunaldiak egingo dira.

Kasu batzuetan, ikasleak 2.5ean urratsean edo lehenago, taldeetan parte hartu ahalko du.

## 4.3 III. NIVEL

Dirigida a jóvenes de entre 14 y 18 años. La oferta de materias complementarias en este nivel favorecerá la formación integral musical del alumnado. Asimismo, se promoverá el desarrollo del aspecto técnico del instrumento y el alumnado participará en la oferta grupal. El alumnado tendrá la oportunidad de recibir un diploma honorífico al finalizar este nivel que refleje el aprovechamiento correspondiente y la habilidad en la interpretación de su instrumento. Para ello será necesario haber cursado el piano complementario/acompañamiento en el curso anterior, cursar asignaturas complementarias en este nivel y superar el examen del instrumento.

Oferta de música grupal:

- Combos (pop/rock/erromeria…)
- Grupo de folk
- Orquesta de cuerda
- Banda
- Banda de txistularis
- Grupo de instrumentos: trikitixa/pandero, percusión, guitarra, acordeón…
- Formación camerística
- Coro: Narama

Los objetivos de la formación grupal consisten en desarrollar la coordinación y la sincronización. Se trabajará un amplio y variado repertorio, haciendo hincapié en la importancia de la disciplina. En todas las formaciones se realizarán audiciones.

En algunos casos, el alumnado podrá formar parte de los grupos en el curso 2.5 o previamente.

### 4.3.1 III.1. urratsa (13 urte)

Maila honetan instrumentua, hautazko gai osagarria eta taldean jotzea eskainiko dira.

Instrumentua: instrumentuaren teknika, partituren irakurketa, buruz zein belarriz jotzeko trebezia, interpretazioa eta inprobisazioa garatuko dira. Iraupena astean 40 minutuko saio bakarrekoa izango da

Abestigintza I: gustoko abestiak entzumenez interpretatzen ikasiko du ikasleak, horretarako harmonia landuz eta moldaketak egiteko gaitasuna garatuz. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

Taldea: talde koordinazioa eta sinkronizazioa landuko dira, errepertorio anitzak erabiliko dira eta diziplinaren garrantzia nabarmenduko da. Entzunaldiak egingo dira. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

### 4.3.1 III.1. curso (13 años)

En este nivel se ofertará el instrumento, la asignatura optativa complementaria y la participación en la oferta musical grupal.

Instrumento: se desarrollará la técnica del instrumento, la lectura de partituras, la destreza mental y auditiva, la interpretación y la improvisación. La duración será de una única sesión de 40 minutos semanales.

Taller de creación de canciones I: aprendizaje de la armonía con el fin de interpretar las canciones deseadas de oído desarrollando la capacidad de realizar adaptaciones.

Grupo: se trabajará la coordinación y la sincronización dentro del grupo, se utilizarán repertorios diversos y se resaltará la importancia de la disciplina. Se realizarán audiciones.

### 4.3.2 III. 2. urratsa (14 urte)

Maila honetan instrumentua, hautazko gai osagarria eta taldean jotzea eskainiko dira.

Instrumentua: instrumentuaren teknika, partituren irakurketa, buruz zein belarriz jotzeko trebezia, interpretazioa eta inprobisazioa garatuko dira. Iraupena astean 40 minutuko saio bakarrekoa izango da

### 4.3.2 III. 2. curso (14 años)

En este nivel se ofertará el instrumento, la asignatura optativa complementaria y la participación en la oferta musical grupal.

Instrumento: se desarrollará la técnica del instrumento, la lectura de partituras, la destreza mental y auditiva, la interpretación y la

Abestigintza II: sormena landuko da abesti bat sortuz, horretarako konposizioaren eta instrumentazioaren oinarriak irakatsiko dira. Musika eta emozioen arteko loturak aztertu eta abestien idazkera landuko da. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.
Taldea: talde koordinazioa eta sinkronizazioa landuko dira, errepertorio anitzak erabiliko dira eta diziplinaren garrantzia nabarmenduko da. Entzunaldiak egingo dira. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

improvisación. La duración será de una única sesión de 40 minutos semanales.
Taller de creación de canciones II: se desarrollará la creatividad con el fin de crear una propia canción, aprendiendo las bases de la composición e instrumentación. Se analizarán las relaciones entre música y emociones, además de trabajar la escritura de las letras.
Grupo: se trabajará la coordinación y la sincronización dentro del grupo, se utilizarán repertorios diversos y se resaltará la importancia de la disciplina. Se realizarán audiciones.

### 4.3.3 III. 3.urratsa (15 urte)

Maila honetan instrumentua, hautazko gai osagarria eta taldean jotzea eskainiko dira.
Instrumentua: instrumentuaren teknika, partituren irakurketa, buruz zein belarriz jotzeko trebezia, interpretazioa eta inprobisazioa garatuko dira. Iraupena astean 40 minutuko saio bakarrekoa izango da
Musika ekoizpen aplikatua: aurrez sortutako abestia edo gustokoren bat grabatu, editatu eta nahasten ikasiko du ikasleak baliabide pertsonalak eta teknologikoak erabiliz. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.
Taldea: talde koordinazioa eta sinkronizazioa landuko dira, errepertorio anitzak erabiliko dira eta diziplinaren garrantzia nabarmenduko da. Entzunaldiak egingo dira. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

### 4.3.3 III. 3.curso (15 años)

En este nivel se ofertará el instrumento, la asignatura optativa complementaria y la participación en la oferta musical grupal.
Instrumento: se desarrollará la técnica del instrumento, la lectura de partituras, la destreza mental y auditiva, la interpretación y la improvisación. La duración será de una única sesión de 40 minutos semanales.
Producción musical aplicada: aprendizaje de la grabación, edición y mezcla de una canción propia o elegida con la ayuda de los medios personales y tecnológicos.
Grupo: se trabajará la coordinación y la sincronización dentro del grupo, se utilizarán repertorios diversos y se resaltará la importancia de la disciplina. Se realizarán audiciones.

### 4.3.4 III. 4.urratsa (16 urte)

Maila honetan instrumentua, hautazko gai osagarria eta taldean jotzea eskainiko dira.
Instrumentua: instrumentuaren teknika, partituren irakurketa, buruz zein belarriz jotzeko trebezia, interpretazioa eta inprobisazioa garatuko dira. Iraupena astean 40 minutuko saio bakarrekoa izango da
Ikus-entzunezkoetarako musika: konposizioaren hastapena eta soinuaren dieseinua landuko ditu ikasleak irudiei musika ipintzeko. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.
Taldea: talde koordinazioa eta sinkronizazioa landuko dira, errepertorio anitzak erabiliko dira eta diziplinaren garrantzia nabarmenduko da. Entzunaldiak egingo dira. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

### 4.3.4 III. 4.curso (16 años)

En este nivel se ofertará el instrumento, la asignatura optativa complementaria y la participación en la oferta musical grupal.
Instrumento: se desarrollará la técnica del instrumento, la lectura de partituras, la destreza mental y auditiva, la interpretación y la improvisación. La duración será de una única sesión de 40 minutos semanales.
Música para audiovisuales: iniciación a la composición, así como al diseño sonoro para crear música para imagen.
Grupo: se trabajará la coordinación y la sincronización dentro del grupo, se utilizarán repertorios diversos y se resaltará la importancia de la disciplina. Se realizarán audiciones.

#### 4.3.4.1 DIPLOMA

Gai osagarriak egin direnean, eta instrumentuan azterketa bidez diplomarako ezarritako maila gainditzen denean, ikasleak bere aprobetxamendua adieraziko duen agiri ez-ofiziala jasoko du: diploma.

#### 4.3.4.1 DIPLOMA

Al cursar todas las asignaturas optativas y aprobar por examen el nivel establecido para el diploma, el alumo/la alumna recibirá el documento no-oficial que avala el aprovechamiento que ha tenido en sus estudios musicales: el diploma.

## 4.4 Irakaskuntza indartua

Hezkuntza arautura (Kontserbatorioetara) joan nahi duten eta Eskolaren iritziz horretarako gogo, aprobetxamendua eta gaitasun egokiak dituzten ikasleek edo ikasle ohiek, irakaskuntza indartua jaso ahal izango dute.

Eskolak irakaskuntza arautura sartzeko probak prestatzeko behar diren irakasgaiak antolatuko ditu eta indartutako irakaskuntza jasotzen duten ikasleek beren beharren araberako dedikazioa izango dute espezialitate eskoletan.

Irakaskuntza indartuaren iraupena gehienez 2 urtekoa da.

Instrumentuari dagokion froga prestatzeaz, dagokion irakaslea arduratuko da. Gai teorikoei dagokionez, aldiz, bi lantalde bereiztuko dira arlo bakoitzaren arduradun izateko:

1. **Mintegia:** Diktaketa erritmiko-melodikoa, musikaren historia, musika-kultura, kantua (irakurketa eta interpretazioa)
2. **Mintegia:** Harmonia, analisia, asmatzea/konposizioa

Lantaldeak, elkarlanean, antolaketa pedagogikoa gauzatuko du: materiala eta saioak prestatu, irakasgaietarako irakasleak adostu, ordutegiak egokitu eta abar.

Irakasle bakoitzak, lehen klaustro egunean, bere burua zein lantaldetan ikusten duen adieraziko du.

## 4.4 Enseñanza reforzada

La enseñanza reforzada estará dedicada al alumnado o antiguo alumnado que quiere asistir a la Enseñanza reglada (Conservatorios), siendo para ello necesario el juicio a favor de la Escuela respecto el interés, aprovechamiento y cualidades de la persona interesada.

La Escuela procurará organizar las asignaturas necesarias para preparar las pruebas de acceso a la enseñanza reglada y el alumnado de música reforzado tendrá una dedicación efectiva de clase de especialidad acorde a sus necesidades.

La duración del refuerzo de la enseñanza es de 2 años como máximo.

La preparación de la prueba correspondiente al instrumento correrá a cargo del profesor o profesora correspondiente. En cuanto al temario teórico se distinguirán dos grupos de trabajo como responsables de cada área:

**1º Grupo:** Dictado rítmico-melódico, historia de la música, cultura musical, canto (lectura e interpretación).

**2ºGrupo:** Armonía, análisis, invención/composición.

El grupo de trabajo, en colaboración, realizará la organización pedagógica correspondiente: preparación del material y de las clases de refuerzo, consensuará los profesores/as a cargo, realizará la adecuación de los horarios, etc.

Cada profesor o profesora, el primer día del claustro, señalará de qué grupo de trabajo formará parte.

## 4.5 Helduentzako musika lengoaia

14 urtetik gorako pertsonek, musika lengoaiari dagokion heziketa jasotzeko aukera izango dute adinera egokitutako taldean. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da. Gehienez bi urteko iraupena izango du helduentzako Musika lengoaiak.

## 4.5 Lenguaje musical para personas adultas

Las personas mayores de 14 años tendrán la oportunidad de adquirir una formación en el lenguaje musical en un grupo adaptado a la edad. La duración será de una única sesión de 60 minutos semanales. El lenguaje musical para adultos tendrá una duración máxima de dos años.

## 4.6 +65: 3. adinekoentzako musika tailerra.

65 urtetik gorakoentzat musika tailerra eskainiko da, aisialdi moduan. Kantua, psikomotrizitatea, erlaxazioa, dantza eta luzamenduak landuko dira besteak beste. Musikaren ezagutza ez da beharrezkoa talde honetan parte hartzeko. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da.

## 4.6 +65: Taller musical para la tercera edad

Se ofrecerá un taller de música para mayores de 65 años como ocio. Se abordarán temas como el canto, la psicomotricidad, la relajación, la danza y los estiramientos. El conocimiento de la música no es necesario para participar en este grupo. La duración será de una única sesión de 60 minutos semanales.

## 4.7 Musikoterapia

Musikoterapia eskainiko da ondorengo egoeretan:

## 4.7 Musicoterapia

Se ofrecerán sesiones de musicoterapia en la siguiente situación:

### 4.7.1 Hezkuntza Antolaketari atxikituriko musikoterapia klinikoa

Bere ezaugarriengatik besteen kontzientzia hartzeko zailtasunak dituenari edota pertsonalagoa den birdoitze emozionala behar duenari musikoterapia saioa eskainiko zaio. Helburu terapeutikokak eta akadamikoak uztartuko dira, kasu bakoitza dagokion moduan aztertuz. Helburu akademikoak, orff orkestrarako parte hartzea eta hautatutako instrumentuaren ikasketa prozesu egoki baterako laguntza bideratzea izango da.

Banakako saioak izango dira. Iraupena astean 40 minutuko saio bakarrekoa izango da.

### 4.7.1 Musicoterapia clínica adherida a la estructura académica

La sesión de musicoterapia está dirigida a quienes por sus características tienen dificultades -o imposibilidad- para tener conciencia de los demás y que necesiten algún tipo de apoyo para el reajuste emocional más personalizado. Los objetivos académicos y los terapéuticos serán complementarios y se definirán en función de las necesidades individuales.

El objetivo académico será facilitar el apoyo necesario para un adecuado proceso de aprendizaje del instrumento elegido y en la participación en la Orquesta Orff.

Las sesiones serán individuales. La duración será de una sesión semanal de 40 minutos.

### 4.7.2 Musikoterapia klinikoa Hezkuntza Antolaketatik kanpo

Bere ezaugarriengatik besteen kontzientzia hartzeko zailtasunak dituenari edota pertsonalagoa den birdoitze emozionala behar duenari, eta ezarrita daukagun hezkuntza antolaketari jarraitzeko ezintasuna duenari, musikoterapia saioa eskainiko zaio. Iraupena astean 60 minutuko saio bakarrekoa izango da, hala ere, egoerak banan-banan aztertuko dira.

### 4.7.2 Musicoterapia clínica fuera de la estructura académica

La sesión de musicoterapia está dirigida a quienes por sus características tienen dificultades -o imposibilidad- para tener conciencia de los demás, de completar lo establecido estructura académica y que necesiten algún tipo de apoyo para el reajuste emocional más personalizado. La duración será de una hora semanal aunque se analizará cada situación de forma particular.

### 4.7.3 Premia bereziei erantzuteko neurriak

Musika lengoaiako irakasleek, premia bereziak badituzte, Eskolako musikoterapeutaren errefortzua jasoko dute horrela hobesten den saioetan. Musikoterapeutak ikasleei jarrapena egingo die eta tutoreei beharrezko aholkularitza eskaini.

### 4.7.3 Medidas para atender necesidades especiales

El profesorado de lenguaje musical recibirá el refuerzo de la persona musicoterapeuta de la Escuela para aquellas sesiones que así lo estimen debido a las necesidades especiales que pueda presentar el alumnado. La persona musicoterapeuta realizará el seguimiento del alumnado de necesidades especiales y proporcionará el asesoramiento necesario a los/as tutores/as.

## 5. Metodologia eta beste alderdi pedagogiko batzuk

Helburu orokorretatik abiatuta, eta betiere, ikasleen nahi eta beharrei ahalik eta erantzun egokiena emateko xedearekin, ikastetxearen hezkuntza eskaintzari balioa eransten dioten hezkuntza praktika anitzak ematen dira.

Eskolaren Curriculum Proiektuan (ECP) irakasgai edo espezialitate bakoitzaren programazioa kontsultatu daiteke, izan ere, hor daude zehaztuta helburuak, edukiak, metodologia, irakaskuntza-materialak eta ebaluazioa.

## 5. Metodología y otros aspectos pedagógicos

A partir de los objetivos generales, y siempre con el fin de dar una respuesta lo más adecuada posible a las necesidades y deseos del alumnado, se ofrecen diversas prácticas educativas que aportan valor a la oferta educativa del centro.

En el Proyecto Curricular de la Escuela (PCE) se puede consultar la programación de cada especialidad o asignatura, donde se definen los objetivos, contenidos, metodología, materiales docentes y evaluación para el conjunto de la Escuela.

## 5.1 Metodologia

Eskolako irakasleek eskaintzen duten irakaskuntzak ondorengo ezaugarriak ditu:

- **Aktiboa – erronketan oinarritua:** ikasketa eraginkorra eman dadin, ikaslea ipintzen duena ikasketa prozesuaren erdigune eta arduradun. Ikaslegoari erronkak aurkezten zaizkio, errealitatetik jasoak izan daitezke, soluzio anitz onartzen dituztenak eta bakarlanarekin batera, lankidetzan garatzen dituzte, ikaskideekin, irakasleekin eta kanpoko interesatu, eragile eta adituekin batera.
- **Norbanakoari zuzendutakoa:** pertsona bakoitzaren interes, nahi eta gaitasunetan oinarritzen dena.
- **Gizarteratzailea:** ikasitakoa publikoak diren entzunaldi, emanaldi eta kontzertuetan aurkezteko ahalegina egiten duena.
- **Sortzailea:** bat-batekotasunaren garapena bilatzen duena, inprobisazioa, adierazteko gaitasuna eta originaltasuna alor guztietan landuz.
- **Dibertigarria:** entretenigarria eta atsegina de heziketa bultzatzen duena, gamifikazioaren aukerak kontuan hartuz.
- **Intuitiboa:** imitazioaren praktikarekin, irakaslearekin batera arituz, zentzumenen bitartez ezagupen intelektualera iristen dena.
- **Konprometitua:** autonomia pertsonalaren garapenarekin inplikatzen dena, ikasteko ohitura eta tekniken ezartzearekin, "ikasten ikastea" indartzen duena. Familien parte hartzea bultzatzen duena.
- **Berritzailea:** irakasleen etengabeko prestakuntza probestuz, helburu bakoitzerako egokienak diren jarduera eta teknologiak erabiltzen saiatzen dena.
- **Hezkidetzailea:** emakume eta gizonen berdintasuna helburu duena.

## 5.1 Metodología

La enseñanza impartida por el profesorado de la Escuela tiene las siguientes características:

- **Activa** – **basada en retos:** con el fin de que exista un aprendizaje significativo. El alumno/la alumna es el centro y responsable del proceso de aprendizaje. Mediante retos que se presentan al alumnado, las cuales pueden ser heredados de la realidad y pueden aceptar múltiples soluciones, deben resolverlos con el trabajo a nivel individual y en colaboración con sus compañeros y compañeras, profesores y otros interesados, agentes y expertos externos.
- **Personalizada:** basado en los intereses, deseos y capacidades de cada persona.
- **Socializadora:** que trata de presentar lo aprendido en audiciones, actuaciones y conciertos públicos.
- **Creativa:** que busca el desarrollo de la espontaneidad, trabajando la improvisación, la capacidad expresiva y la originalidad en todos los ámbitos.
- **Divertida:** entretenida y educadora, que toma en cuenta las posibilidades que ofrece la gamificación.
- **Intuitiva:** mediante la práctica de la imitación, trabajando con el profesor, llega al conocimiento intelectual a través de los sentidos.
- **Comprometida**: implicada con el desarrollo de la autonomía personal, con la implantación de hábitos y técnicas de aprendizaje que refuercen el "aprender a aprender". Que fomente la participación de las familias.
- **Innovadora:** aquella que, gracias a la formación continua del profesorado, trata de utilizar las tecnologías de actuación más adecuadas a cada objetivo.
- **Coeducadora:** orientada a la igualdad de mujeres y hombres.

## 5.2 Hezkidetza irizpideak

Eskolan berdintasun harremanak eraikiko dira eta zailtasunak, adierazpen sexistak edota genero indarkeria kasuak identifikatuz gero, neurriak hartuko dira Udalak dituen irizpideak jarraituz.

## 5.2 Criterios de coeducación

En la escuela se construirán relaciones de igualdad y en caso de identificar dificultades, expresiones sexistas o casos de violencia de género se adoptarán medidas siguiendo los criterios establecidas en el Ayuntamiento.

### 5.2.1 Erreferenteak

Irakasteko erabiltzen den errepertorioaren, horien egiletza eta interpretazioan genero berdintasuna bermatuko dira.

Musikaren arloan emakume erreferenteak ezagutarazi eta bistaraziko dira.

### 5.2.1 Referentes

Se garantizará la igualdad de género respecto a la autoría e interpretación de obras que formen parte del repertorio del alumnado.

Se darán a conocer y se visibilizarán las mujeres referentes en el ámbito de la música.

## 5.3 Tutoretza

## 5.3 Tutoría

Eskolan ikasle den pertsona orok hezkuntza aukeren inguruan orientatu eta aholkuak emango dizkion tutore bat izango du.
Tutorea ikasle eta familientzat ikastetxearekin komunikatzeko erreferentziazko pertsona izango da. Hezkuntza prozesuaren garapen egokia eta hezkuntza komunitatean integrazioa eman daitezen lan egingo du, eta gertatuko balira, gatazken konponketa bultzatuko du.
Horrez gain, ikaslearen ebaluazioa gainbeiratuko du, indarrean dauden irizpideak jarraituz eta horien inguruko informazioa emanez.
Tutore bakoitzak, ikasle eta familiekin elkartzeko izango duen ordutegia, ikasturte hasieran komunikatuko du.

Toda persona matriculada en la Escuela tendrá asignado una tutora o tutor que le orientará y asesorará sobre las opciones educativas.
El tutor o tutora será la persona de referencia para la comunicación de alumnado y familias con el centro, y velará por el buen desarrollo del proceso educativo y la integración en la comunidad educativa, impulsando la resolución de conflictos, si los hubiera, mediante una relación de cercanía con la alumna o alumno. Asimismo, será la encargada de efectuar un seguimiento de la evaluación de cada alumno o alumna, informando de la misma según las directrices vigentes.
Cada tutora y tutor contará con un horario semanal establecido destinado a recibir al alumnado y familias que será comunicado al inicio de cada curso.

## 5.4 Ebaluazioa

Maila guztietan ebaluazio jarraia egingo da, eta ikasleak edo familiak hala eskatzen badu, edozein momentutan komunikatuko zaio.
2.eta 3. mailetan, hiruhileko bakoitzaren bukaeran ebaluazioaren berri emango da kalifikazio-txostenaren bidez. Kalifikazioez gain, bertaratze hutsak eta, egongo balira, beste gertakari aipagarriak ere jasoko dira.
3.mailara pasatzeko ikasleak instrumentuan gaitasun maila jakin bat izan beharko du, horretarako, berari egokitutako ebaluazioa gainditu beharko du.
Diplomaren azterketara aurkezteko baldintza, instrumentuan gaitasun-maila egokia lortu eta gai osagarriak probetxuz gauzatzea izango da.

## 5.4 Evaluación

La evaluación será continua en todos los niveles y se comunicará en cualquier momento a petición del alumno o la alumna o de la familia.
En los niveles 2 y 3, al final de cada trimestre se informará de la evaluación mediante el informe de calificación. Además de las calificaciones, se recogerán las asistencias y, en su caso, otros hechos relevantes.
El alumnado tendrá que alcanzar un nivel de aptitud para pasar al tercer curso ajustado a sus posibilidades, teniendo que superar una evaluación para ello.
El requisito para presentarse al examen del Diploma será haber alcanzado un nivel adecuado de aptitud en el instrumento y cursar con aprovechamiento las materias complementarias.

### 5.4.1 Ikasleak

AFAren 3.tituluan jasotzen dira ikaslearen eskubide eta betebeharrak eta, ondorioz, arau hausteen eragina eta zigorren jardunbidea.

### 5.4.1 Alumnado

En el título 3 del ROF se recogen los derechos y deberes del alumnado y, en consecuencia, el alcance de las infracciones y el funcionamiento de las sanciones.

### 5.4.2 Irakasleak

AFAren 17. eta 18. Artikuluan jasotzen dira irakaslearen eskubide eta betebeharrak. 2.5.mailatik aurrerako ikasleek, ikasturte amaieran irakaslea ebaluatuko du inprimaki baten bidez. Horrela, irakasleak bere indarguneak eta ahulguneak ezagutu ditzake etengabeko hobekuntza bermatu dadin. Inprimakiak helburu bikoitza du: batetik, ikaslearen iritziari leku bat egitea, eta bestetik eta horren harira, irakaslearentzat lagungarri den euskarri izatea bien arteko hausnarketarako gune bat irikiz.

### 5.4.2 Profesorado

Los artículos 17 y 18 de la ROF recogen los derechos y deberes del profesor. A partir del nivel 2.5 el alumnado evaluará al profesorado al final del curso mediante un formulario. De esta manera, el profesor o la profesora puede conocer sus puntos fuertes y débiles para garantizar la mejora continua. El objetivo del impreso es doble: por un lado, favorecer que el alumnado tenga espacio para dar su opinión y, por otro lado, servir de soporte al profesor o a la profesora para activar un espacio de reflexión conjunta

## 5.5 Instrumentuen mailegua

Kontuan hartuta hasi berrientzako instrumentuen prezioa edo/eta egun espezialitate batzuek izaera minoritarioa dutela, Musika Eskolak, mailegu instrumentu zerbitzua du eta Antolamendu eta

## 5.5 Préstamo de instrumentos

Teniendo en cuenta el elevado precio de los instrumentos para el nuevo alumnado y/o el carácter minoritario de algunas especialidades, Musika Eskola dispone de un servicio de instrumentos de préstamo cuyas condiciones y la información

Funtzionamendu Araudiaren (AFA) jasotzen dira baldintzak, baita informazio gehigarria ere.

### 5.6 Programazio didaktikoak

Eskolako instrumentu espezialitate guztiek dituzten helburu orokorrak eta metodologia bateratua, hala nola gai osagarrietakoak, bigarren eranskinean jasotzen dira.

## 6. Matrikulazio erregimena

Ikasleak onartzeko sistema AFA araudian jasotzen da.

## 7. EHP aldatzeko prozedura

EHPn aldaketa txikiak egin beharko balira, Urteko Plana (UKP) eta Azalpen txostenaren (UKT) idazte eta onartze prozesu berean proposatu eta zehaztuko dira.

específica se recoge en el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF).

### 5.6 Programaciones didácticas

Los objetivos generales y la metodología común para todas las especialidades instrumentales de la Escuela, así como de las asignaturas complementarias se recogen en el segundo anexo.

## 6. Régimen de matriculación

El sistema de admisión del alumnado se recoge en el reglamento ROV.

## 7. Procedimiento de modificación del PEC

Si fuera necesario realizar modificaciones menores al PEC, se propondrán y definirán en el mismo proceso de redacción y aprobación del Plan Anual (PAG) y Memoria (MGA).

## 1. ERANSKINA/ANEXO

Hezkuntzaren antolaketaren laburpen-diagrama / Diagrama-resumen de la estructura académica






## 2. ERANSKINA/ANEXO

Programazio didaktikoak / Programaciones didácticas.

## ESPEZIALITATEETARAKO ESKOLAREN HELBURU OROKORRAK

1.- Sentsibilitate musikala eta estetikoa garatzea.
2.- Musikaren ulermenak eta interpretazioak giza garapenean duen ondorioaz jabetzea.
3.- Ikasteko ohitura aproposak landu:

- Zentzu kritikoz norberari entzuteko gaitasuna garatu, soinuaren eta musikaren kalitateaz jabetzeko.
- Dedikazioaren garrantzia azpimarratu, honek dituen onurez jabetu.

4.- Taldeetan musika jotzera bultzatzea, elkarri entzun eta egokitzeko ohitura sustatzeko eta musikaz gozatzeko.
5.- Garai eta estilo ezberdinetako obrak interpretatzea, euskal folklorea ere kontuan hartuz. Obra bakoitzaren testuinguruaz hitz egin.
6.- Motibazioa indartzeko erronketan oinarritutako ikasketaz probestu.
7.- Jarrera egokia landu: puntualitatea, disziplina eta ikasketari aurre egiteko baikortasuna bultzatu.

## ESPEZIALITATEETARAKO ESKOLAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK

1.- Gorputz-kontzientzia hartzea eta posizioa lantzea.
2.- Soinu egokia lortzea.
3.- Dagokion digitazioa edota dikzio/artikulazioa lantzea.
4.- Interpretazioan arreta ipintzea: artikulazioak, dinamikak, abiadura, erritmoa.
5.- Hainbat garai eta estilotako obrak ezagutzea.
6.- Memoria garatzea.
7.- Inprobisazioa garatzea.
9.- Irakurketa sakontzea.
10.- Instrumentu gehiagorekin taldean trebatzea.
11.- Konfiantza eszenikoa garatzea: jende aurrean jotzea.
12.- Instrumentuaren estruktura mekanikoa ezagutzea, baita historian jasandako eboluzioa ere.

## EBALUAZIO IRIZPIDE OROKORRAK

Ebaluazio-tresna bezala behaketa erabiltzen dugu. Horretarako, astez asteko jarraipena egiten dugu, eta audizioetan nahiz proba ezberdinetan ikasleak dagokion egoera menperatzen duen ere behatzen dugu. Helburuak abiapuntu izanik, 3 konpetentziatan bereizitako ebaluazioa jasotzen du ikasleak:

| JARRERA | EZAGUTZA | TREBETASUNA |
|---|---|---|
| Asistentzia | Programazioa | Koordinazioa |
| Portaera | Irakurketa | Soinu emisioa |
| Dedikazioa etxean | Erritmoa | Afinazioa |
| Interesa | Posizioa | Taldearekin sinkronizazioa |

## 3. MAILAKO GAI OSAGARRIEN HELBURU OROKORRAK

Ikasleen heziketa integrala bultzatzea da gai osagarrien xedea: musika bere osotasunean ulertu, barneratu eta sormena garatuz, norberaren adierazpen anitzetarako musika baliabide bezala erabiltzean datza.
Pentsatzeko jarduerak diseinatuko dira kritikotasuna garatzeko eta beraiek martxan ipiniko dituzten ikerketetan oinarrituko gara ezagutza bideratzeko.
Bakarlana eta taldelana konbinatuko dira: norberaren autonomia garatzeaz gain modu kolaboratiboan lan egingo dute ikasleek.
IKTez eta musikara egokitutako teknologia berriez probestuko gara modu arduratsuan.
**Erronketan oinarritutako metodologia aktiboan** oinarrituko gara, ikasten ikastearen konpetentzia eta metakognizioa garatuz.
Ebaluaketarako scape room-ak aplikatuko dira, zeharkako konpetentziak garatu eta taldelana bultzatzeko.

- **Abestigintza I**
  Erronka: aukeratutako gustuko abestia jotzeko gai izan norberaren instrumentuan (banakako erronka). Ondoren, moldaketak gauzatu ikaskideen abesti guztiak bateratzeko, eta dakizkiten instrumentuekin kurtso amaieran elkarrekin jotzeko. Horretarako baliabide armoniko eta melodikoez probestuko dira (taldeko erronka). Modalitatea: banaka eta taldean.

  **Ebaluazio irizpideak:**

| JARRERA | EZAGUTZA | TREBETASUNA |
|---|---|---|
| Asistentzia | Harmoniaren ulermena | Entzumen harmonikoa |
| Portaera | Informatika musikala | Interpretazioa |
| Dedikazioa | Instrumentazioa | Melodiak sortu eta eraldaketak egiteko gaitasuna |
| Interesa | Lengoaia | |

- **Abestigintza II**
  Erronka: abesti bat idatzi musika eskolako ikasle edo irakasleek interpretatu dezaten ikasturte amaieran. Abestia instrumentala edo letrarekin izan daiteke. Gutxienez 2 instrumentu. Modalitatea: banaka.
  **Ebaluazio** irizpideak**:**

| JARRERA | EZAGUTZA | TREBETASUNA |
|---|---|---|
| Asistentzia | Harmoniaren ulermena | Entzumen harmonikoa |
| Portaera | Informatika musikala | Interpretazioa |
| Dedikazioa | Instrumentazioa | Melodiak sortu eta eraldaketak egiteko gaitasuna |
| Interesa | Lengoaia (idazkera) | Hitzak |

- **Musika ekoizpen aplikatua**
  Erronka: norberaren abesti bat edo gustuko kanturen bat grabatzeko gai izan eskolako baliabide pertsonalak eta teknologikoak erabiliz.

  Modalitatea: banaka.
  Irakasgai honetan ikasleei praktikatzera joateko aukera eskaini ahal zaie egutegi bat partekatuz, gela libre dagoen momentuak aprobetxatu ditzaten.

| JARRERA | EZAGUTZA | TREBETASUNA |
|---|---|---|
| Asistentzia | *Studio one*-en erabilera | Moldaketak |
| Portaera | MIDI-aren erabilera | Teknikari roll-a |
| Dedikazioa | Audio grabaketak | |
| Interesa | Nahasketak | |

- **Ikus-entzunezkoetarako Musika**
  Erronka: pelikula bateko zati bati musika konposatu (soinu diseinu bat gauzatu). Modalitatea: banaka. Irakasgai honetan ikasleei praktikatzera joateko aukera eskaini ahal zaie egutegi bat partekatuz, gela libre dagoen momentuak aprobetxatu ditzaten.

| JARRERA | EZAGUTZA | TREBETASUNA |
|---|---|---|
| Asistentzia | *Studio one*-en erabilera | Entzumen harmonikoa |
| Portaera | Liburutegi birtualen erabilera | Interpretazioa |
| Dedikazioa | Konposizioaren oinarriak | Melodiak sortu eta eraldaketak egiteko gaitasuna |
| Interesa | Instrumentazioa | Diagnosia eta interpretazioa |
| | Irudiarekin sinkronizazioa | |